

2006KO OTSAILAREN 8KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko otsailaren seian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko urtarrilaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGIETA HEMERTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (101.799,72 €)koa, eta 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.-dun fakturen zerrenda, EHUN ETA BERROGEI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGIETA BI ZENTIMO (140.696,22 €)koa, beraien espedientetan jasotzen direnak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEAREN BIRMOLDAKETA LANEN LEHEN FASEKO 2. ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen lehen fasearen bigarren zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA HIRU euro eta HAMAIKA zentimo (67.403,11 €)takoa da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Honen aurrean eta zertifikazio hau aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 179 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua gehitzea, astean 6 ordutik astean 7 ordu eta 15 minutura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak. -

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 89,25€ ematea urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %99 a da.

- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko, hilean 30,21€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %74 a da.

- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 81,02€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.

- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 47,60€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %98a da.

- 161 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 84,71€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.

- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 72,46€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100 a da.

- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 41,21€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %86 a da.

- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 89,27€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.

- 133 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 75,65€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %82a da.

- 427 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko, hilean 234,5€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 51,58€ ematea, urtarritetik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100 a da (*).

- 557 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 47,78€ ematea, urtarritetik abendura ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.

- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 84,75 € ematea, urtarritetik abendura ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %94a da.

- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 90,16€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.
- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 62,27€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %85a da.
- 385 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 39,57€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %90a da.
- 722 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean, 127,05€ko dirulaguntza ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %55a da. (*)
- 627 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 275,10€ko dirulaguntza ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da. (*)
- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 90,16€ ematea, urtariletik abendura ekainean berraztertuz. Garbigailu bat erosteko 339€ ematea. Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.
- 250 zbk.dun esped.: Bi betaurreko pare erosteko 360,00€ ematea (gerturako eta urrutirako). Onuradunaren ekarpena eskatutakoaren %100a da.

(*) Arautegian egon diren aldaketak direla eta, alokairuaren prezioaren %100 a %70ari dagokio.

Entitateei dirulaguntzak. -

2006 ekitaldiari dagozkion dirulaguntzak era honetan banatzea:

<u>Entitatea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
ASPACE	448,00 €
ATZEGI	415,00 €
ODOL EMAILEAK	1.050,00 €
GURUTZE GORRIA	658,00 €
DYA	340,00 €
HIES-AREN AURKAKO ELKARTEA	448,00 €
GIZAKIA HELBURU	1.027,00 €
GUZTIRA	4.386,00 €

V.- LAZKAOKO UDALA ETA SAN BENITO IKASTOLAREN ARTEAN ESKOLA KIROLAREN GARAPENERAKO HITZARMENA. -

Udal honek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola-kirolaren garapenerako hitzarmena izenpetzen dute azken urte hauetan. Hitzarmen horretan eskola-kirola garatzeko zenbait jarduera bultzatzera behartzen da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarduera horiek aurrera eramateko dirulaguntza ematen du.

Beste alde batetik eta aurretik aipatu den hitzarmen hori oinarritzat hartuz, Lazkaoko Udalak eta San Benito Ikastolak hitzarmena izenpetzen dute baita ere azken urte hauetan eskola-kirolaren garapena aurrera eramateko helburuarekin.

Hitzarmen horren baitan, San Benito Ikastolak bere gain hartzen du eskola-kirola aurrera eramateko behar den egitura jartzeko konpromezua, hau da, koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko balioko duen egitura hain zuzen ere. Lazkaoko Udalak, bere aldetik, eta oraingo hitzarmenari dagokionean BEDERATZI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI (9.288,-) EUROTako dirulaguntza emango dio San Benito Ikastolari 2005-2006 ikasturtean zehar.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta kiroleko batzordearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkaon eskola-kirola garatzeko San Benito Ikastolarekin izenpetu den hitzarmen hau, bere espedientean aurkitzen dena, onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.